



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Asteartea
2009-05-19

VII URTEA 1.705 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

12. zortzimilakoa lortu du Edurne Pasabanek Kangchenjungara igota

TOLOSA Munduko 3. mendirik altuena da (8586 metro); Asier Izagirre tolosarra izan du bidelagun espedizioan

IGOTZEKOAK Hamalau zortzimilakoen erronka osatzeko Annapurna eta Shisha Pangma mendiak falta zaizkio z



Leidor aretoan emanaldia eskaini zuten herenegun Musika Eskolako eta Udaberri dantza taldeko ikasleek. I. LAHIDALGA

DANTZA ETA MUSIKA UZTARTURIK MUSIKARIAREN BAITAN

TOLOSA Gaur O+Hatz bikotea izango da Musika Eskolan eta bihar Gaztelurrutia eta Jaso jazz bikotearen emanaldia izango da » 3

Gizon bat aurkitu dute hilik, indarkeria arrastoekin

BERROBI Etxola baten barruan topatu zuten atzo, Eutela auzoan; Ertzaintza ikertzen ari da » 4

Ehunka lagun bildu dira Gazumeko parke eolikoaren aurka protesta egiteko


TOLOSALDEA Zelatunen egin zuten elkarretaratzea » 4

Lehen Mailako Banakako Txapelketaren finalerdia galdu du Bengoetxeak

LEITZA Martinez Irujoren aurka 15-22 egin zuen » 7

DISEINU GRAFIKO eta sormenean oinarritutako heziketa

Erdi eta Goi Mailako Heziketa Zikloak



ceinpro

TITULAZIO OFIZIALAK

Nazioarteko lehiaketak
praktikak atzerrian

IRUDIZTAPENA . KARTELGINTZA . PUBLIZITATEA .

ARGAZKIGINTZA . BERRUKIPEN DIGITALA . SERIGRAFIA

WEB DISEINUA . MULTIMEDIA . MAKETAGINTZA

www.ceinpro.es
INFORMAZIOA 943 310 873

Hertz Pasealekua 95 • 20006 Donostia • Gipuzkoa • Faxa 943 310 875



Edurne Pasabanek 12. zortzimilakoa lortu du, Kangchenjungara igota

Mendia » Asier Izagirre tolosarrarekin batera egin du; Annapurna eta Shisha Pagma falta zaizkio 14 zortzimilakoak igotzeko.



Edurne Pasaban Kangchenjungara igota baino lehen lehen kanpamentuan. HITZA

ERREDAKZIOA

14 zortzimilakoak osatzeko erronkan hamabigarren gailurra batu du dagoeneko Edurne Pasaban mendigoizaleak, atzo lortu baitzuen Kangchenjungako gailurra (8586 metro) zapaltzea. Asier Izagirre tolosarra izan da espedizioan berarekin batera. Euskal Herrian 13:15 zirenean jakinarazi zuen Pasabanek gailurrera heldu zirela, bere webgunean bertan.

Honenbestez, Annapurna (8.091 metro) eta Shisha Pangma (8.031 metro) gailurrak falta zaizkio Pasaban tolosarrari 14 zortzi-

milakoak lortzeko. Asier Izagirre-ren kasuan, laugarren zortzimilakoa izan da berarentzat; Broad Peak, Manaslu eta Dhaulagiri gogotatu zituen aurretik.

Munduko hirugarren mendirik altuena da Kangchenjungara, 8586

metroko garaierarekin eta Nepal eta India artean dago. Azken espedizioan *Al filo de lo imposible* Espainiako telebista saioko kideekin izan dira tolosarrak. Juanito Oiarzabalek, Ferran Latorrek eta Alex Txikonek osatu dute taldea. Alber-

to Zerain, Koke Lasa, Julen Rekeita, Patxi Goñi, Oscar Cadiach eta Juanjo Garraren taldea ere handa.

Espedizioak laugarren kanpamentura jaisteari ekin zion atzo, 7800 metrora, hain zuzen ere. Pasabanek berak aipatu bezala, «zati hau oso gogorra eta luzea» da. «Harkaitz asko dago zonalde honetan eta aurten oso elur gutxi dago gainera», azaldu zuen mendizaleak. Aurreko astean igotze nahi zuten baina haizeak zirela eta, atzeratuz joan ziren igotze eta azkenean atzo lortu zuten.

Shisha Pangman egin zuen saikera urrian

Esan bezala, Annapurna eta Shisha Pangma falta zaizkio Pasabani bere erronka burutzeko. Iazko urrian saiatur zen, Izagirrekin batera, Shisha Pangma igotzen baina

» 14 ZORTZIMILAKOAK

Igotakoak

- Makalu (8.035 m). 2002.
- Cho Oyu (8.201 m). 2002.
- Lhotse (8.516 m). 2003.
- Gasherbrum II (8.035 m). 2003.
- Gasherbrum I (8.163 m). 2003.
- K2 (8.611 m). 2004.
- Nanga Parbat (8.125 m). 2005.
- Broad Peak (8.047 m). 2007.
- Dhaulagiri (8.167 m). 2008.
- Manaslu (8.156 m). 2008.
- Kangchenjunga (8.563 m). 2009.

Igotzeko

- Shisha Pangma (8.046 m).
- Annapurna (8.091 m).

saiakera bertan behera utzi behar izan zuen, eguraldi txarra zela medio. Orduan haize gogorra eta hotz handia egiten zuen gailurrera joateko. Gailur hau eta Annapurnakoa lortuz gero munduan lehen emakumea litzateke Pasaban hamalau zortzimilakoak igotzen. Helburua gero eta gertuago du Tolosakoak.

Zortzigarren postuan amaitu du Laskorainek denboraldia

Areto futbol » Azken neurketan Elorrioren aurka jokatu zuten horitxoek eta 5-6ko emaitzarekin amaitu zuten.

ERREDAKZIOA

Urtea ahalik eta zapore onenarekin bukatzea komeni izaten da beti ere eta Laskorainek 5-6ko emaitzarekin itxi zuen 2008-2009 egutegiko bere azken lehia. Elorri taldearen aurka lortu zuten horitxoek bere azken garaipena eta, honi esker, zortzigarren postuan amaitu dute.

Partidaren nondik norakoak

Erdipurdiko lehenengo zati baten ondoren, 3-2 ipini ziren atzetik tolosarrak Landerrek eta Telletxeak egin zituztelarik gipuzkoarren sarreratzek, orduarte eta aurtengo-

an beste horrenbestetan gertatu den bezala, atsedendira ez ziren oso gustura heldu Laskorain-goak.

Bigarren zatian, ordea, gogotsu eta zirrara onekin ekin zioten Alonsoren mutilek, baina etxekok asmatu zuten ate aurrean, 4-2koa igotzeko markagailura. Telletxeak alde murritzuta arren berrirerantzun zuten bizkaitarrek eta 5-3koarekin aritu ziren ondorengo minutuetan. Telletxeak izan zen berriro ere 5-4koaren arduraduna 10 metrotatik 4 minuturen faltan, hori gutxi balitz, azken minutuan Barriolak berdinketa ezarri zuen. 17 segundoren faltan Saldias kapitainak eman zion garaipena bere.

Telletxearen azken partidari, hiru gol

Taldeko arduradunek Telletxearen lana azipimarratu nahi izan dute bereziki, laskoraindar mo-

duan jokaturiko bere azkenengo partiduan 3 gol egin.

Telletxearekin batera, Laskorainen urte mordoan aritu diren Amatriainek eta Domentxek ere euren azkenengo denboraldia itxi zuten asteburuan.

Larunbatean Elorrioren, Egizabal entrenatzaile moduan, Javi delegatua, Domentxe, Telleria, Telletxe, Barriola, Lander, Murgi, Saldias, Ekhi, Gil, Joniko eta Endika izan ziren. Hauek osatu zuten, hortaz, denboraldiko azken partida.

Beheko taldeentzat, garaipenak

Filialari dagokionez, 1-0 irabazi zuen etxean eta igotze fasea jokatu du ondorengo asteetan. Gazteek 1-8 irabazi zuten beraien neurketan eta Pradosen neskek ere beste horrenbeste egin zuten 5-2ko emaitzarekin.

Ordiziaren aurka galduta larunbatean sailka daiteke TAKE

ERREDAKZIOA

«Ahazteko moduko» partida jokatu zuen TAKE Orbela Tabernak pasa den larunbatean Ordizian eta talde baten itzala besterik ez ziren izan arratsalde beltz batean Ordiziak koloreak atera baitzizkion. Taldeko arduradunek «autokritika egiteko modukoa» izan zela aipatu dute. Egoitzen mutilek ezohiko partida bat jokatu zuten, lehen laurdena alde batera utzita. Laurden honetan, tolosarrak izan ziren nagusi 18-25eko markagailuarekin heldu ziren amaierara.

Hemendik aurrera egoera oso bestelakoa izan zen. Aza lesionatu egin zen eta hor amaitu zen partida. Jokalariak partidatik kanpo zeuden eta ordiziarrak gero eta animatuago agertu ziren atsedendira bi puntuko abantailarekin iristeko.

Hirugarren laurdena, «taldeko historiako okerre»

Taldeko arduradunek azaldu bezala, «hirugarren laurdena historiarako geratuko da, taldeak azken bi urteetan jokatu duen laurden okerre bezala». Bosoak jaitsi zituzten, borrokatzeari utzi zioten, aulkiko kudeaketa txarra izan zen... 15 puntuko desabantaila izan zuten eta partida erabakita geratu zen.

Azken laurdenak ohikoak ez diren jokalariek minutu batzuk izan zituzten balio izan zuen, «hauek gutxienez borrokatu egin baitzuten».

Orain hirugarren partida jokatu beharko dute Tolosan datorren larunbat arratsaldeko 16:00etan Usabal. Arduradunek zaleak bertaratzera animatu nahi izan dute.

Hilberria

MILAGROS ORMAETXEA ESNAOLA



Izarxoko bat zerutik zinen eroria izenez taizatez denon inbidia sortze hutsetik dator zure miraria

Mozanbikoko lagunak inoiz aztu gabe sorteri bakoitzak du oinarri ta habe Agerreko atek zabalikan daude



ORENDAIN
2009ko maiatzaren 19a

Zure sendi osoak eta bereziki zure ilobek

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZAk Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

O+Hatz bikotea izango da gaur Musika Eskolan, Musikariaren baitan

Kultura » Herenegun, Udaberri dantza taldekoen eta Musika Eskolako ikasleen emanaldiarekin eman zioten hasiera.

ERREDAKZIOA

Musikaria asteari herenegun eman zioten hasiera, Udaberri dantza taldekoen eta Udala Musika Eskolako ikasleen emanaldiarekin. Leidor antzokian, musika eta dantza uztartu zituzten.

Gaur, O+Hatz taldekoak Musika Eskolan izango dira. Gazte hauek euskal musika-tresnak modu entretenigarrian emango dituzte ezagutzera. Horrekin batera, jendeari beraien tresnei buruzko informazio teorikoa eta soinu-duna emango diete, alde tradizionalak nahiz modernoak jorratuz. Lehenengozatian, taldeko kideek euskal musika-tresnak aurkeztuko dituzte (txalaparta, txistua eta danbolina, txirula, trikitixa, panderoa, alboka). Tresna bakoitzari buruzko azalpen teorikoa emango dute: alde fisikoak, teknikoak, historikoak, eraikuntzarekin loturikoak... Jarraian, musika-tresna bakoitzarekin abesti bat joko dute. Egitarau tradizionala



Udaberri dantza taldeko ikasleak eta Musika Eskolakoak Leidorren izan ziren herenegun. NEKA

abestiak joko dituzte, dantza tradizionalaren errepertorioa hiru erritmo nagusietan (fandangoa, arin-arina, biribilketa). Bigarren zatian, taldeko kideek kontzertu txiki bat eskainiko dute, beraien errepertorioa 5 edo 6 abestiz osatua. Abesti hauetan, euskal musika-tresnez gain beste batzuk erabiliko dituzte, adibidez ataula in-

diarra, Jamaikako steel drumak, etabar.

Bihar, jazz doinuak entzuteko aukera izango da Musika eskolan. Mikel Gaztelurrutia piano jotzailea eta Javier Lopez Jaso akordeoi jotzailea izango dira eszenatoki gainean. Topaketa honetan, musika-mosaiko bat egiten du, non mes-tizajea eta musika estilo ezberdi-

nak nahasten diren eta entzuleei saillkapen zaila duen proposamen ezberdina eta originaltasunez be-ttea eskaintzen dion. Ezohiko in-strumentu elkarketa da, formatuan eta musika gaietan bakarra esta-tuan, sonoritate desberdin eta era berean hain politik dituen bikote-ak ate berri bat irekitzen du. Musi-ka ibilbide berria, doinu eta errit-

» 15. MUSIKARIA

Maiatzak 19, asteartea
■ **O+Hatz.** Jon Garmendia eta Iñaki Plazak osatutako bikotea Musika Eskolan izango da 19:00etatik aurrera.

Maiatzak 20, asteazkena
■ **Gaztelurrutia eta Jaso.** Jazz bikotearen emanaldia izango da 19:00etan, Musika Eskolan.

Maiatzak 22, ostirala
■ **Urko Menaia, Idoia Etxeiza eta Luis Fernandez.** Ekitaldia 19:00etan hasiko da eta Musika Eskolan bertan izango da.

Maiatzak 23, larunbata
■ **Tolosako Musika Banda eta Udala Txistulari Banda.** Kontzertua eskainiko dute Zerkausian, 19:00etan.

Maiatzak 28, osteguna
■ **Andoingo Musika Eskolaren elkartrukea.** Musika Eskolan izango da emanaldia, 19:00etan.

mo ezberdinez osatua: tangoa, frantses musettea, musika klasiko eta filmeetakoa, bluesa, swinga, eta hau dena jazza eta musika inprobisatuaren naturaltasunaz moduztatua. Musika da guztiz protagonista proiektu honetan: Sortzeko askatasuna, unibertsalitate, dibertsitate, eta xumetasunaren esentzia dira nagusi nahasketak bitxi eta berritzaile honetan.

70 gaztetxo aritu dira zarboak eta amuarrainak arrantzatzen, Orian

Kirolak » Gipuzkoako txapelketak jokatu ziren bi alor hauetan; parte hartu zuten guztiek eraman zituzten sariak etxera.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Amuarrain eta zarboen arrantza txapelketak jokatu ziren herenegun goizean, Oriako uretan. Sei eta hamalau urte bitarteko 70 gaztetxok hartu zuten parte bertan. Tolosako Arrantzaleak elkarteak Lehendakari den Pedro Gomezek azaldukoaren arabera, «ibaia oso egoera onean zegoen eta oso ongi joan zen txapelketa».

Amuarrainen kasuan, hiru harrapatu behar zituzten gaztetxok, eta arrantzatu bezain pronto kontrolgunera eraman behar zituzten. Gomezek hitzetan, oro har azkar ibili ziren arrantzaleak. Bestalde, batzuk, zigortuak izan ziren, denbora baino lehen hasi zirelako arrantzan. Zarboen kasuan, asko daudela ikusita, bost arrantzatu behar zituzte, eta ez zazpi, iaz bezala.



Txapelketako irabazleak sariarekin Zerkausian; txapelketako uze bat. NEKA/LL

Gipuzkoa mailako txapelketa honetan, Tolosaldekoak izan ziren parte-hartzaile gehienak. Hala ere, Lasarte, Beasain, Oñati eta Donostiatik ere etorri ziren batzuk.

Lehiatu ziren arrantzale guztien eraman zuten opariren-bat etxera. Baita, ikustera etorri ziren amek eta sei urte baino gutxiago zituzten haurrek ere.

Saharako kultur iragana mintzagai izango da, Maiatza Borrokanen

Elkartasuna » Tolosaldea Sahararekin Sahara Bizi elkarteak antolatuta gaur hizlari izango da Andoni Saenz de Buruaga.

ERREDAKZIOA

Tolosaldea Sahararekin Sahara bizi elkarteak Fronte Polisarioaren 36. urteurrena dela-eta hainbat ekitaldi antolatu ditu hilabete honetarako. Hauetako, Maiatza Borrokan izenburupean bildu dituzte.

Gaur, Andoni Saenz de Buruaga, EHUKo irakaslea izango da hizlari. *La búsqueda científica del pasado cultural del Sahara* izenburupean mintzatuko da. Jardunaldia Kultur Etxean izango da, 19:30etik aurrera. Saenz de Buruaga Gasteizko arkeologo bat da, historiaurreko irakaslea. Hainbat espedizio burutu ditu Tiriseko eskualdean, Mendebaldeko Sahara askatuan. Arakatu gabeko zonaldea zen bera eta nomada nahiz militar sahara-

rrez bakarrik izan zen zapaldua ordura arte. Arkeologiaren bitartez, saharar kultura eta historia babestu nahi dute Saez de Buruagak eta bere kideek, eta modu honetan, Tindoufeko errefuxiatu kanpamentuetan dauden sahararrei lagundu. Arabarrak eta bere kideek egindako ikerketaren ostean, jakin zuten, K.A. 10.000 - 4.000 urte bitartean animalia asko bizi zirela Saharan: elefanteak, jirafak, hipopotamoak... Bestalde, egun ikusi daitakeen paisaiarekin ez zuen zerikusirik, Afrikako sabanaren antza handia baitzuen.

Bihar iluntzeko ekitaldiarekin emango diote amaiera Tolosaldea Sahararekin Sahara Bizi elkarteak Maiatza Borrokanen. Izan ere, egun honetan, borroka armatuaren 36. urteurrena betetzen da. Egun hau gogora ekartzeko, *Maroko saharatik at, autodeterminazioa eta independentzia Mendebaldeko Sahararentzat* lelopean elkarretaratzera egingo dute. Hau Tolosako Plaza Zaharrean, Udaltxe aurrean izango da, 20:00etan.

Gazte Asanbladaren ekimena txalotu du Ingurumen Batzordeak

Anoeta » Gazteek auzolanak antolatu dituzte Lasarbe erreka garbitzeko Gaztetxearen 10. urteurrenaren baitan.

ERREDAKZIOA

Gaztetxearen 10. urtemugaren harira, Gazte Asanbladak auzolan ekimenak antolatu ditu maiatzeko lehen hiru asteazkenetan Lasarbe erreka garbitzeko. Udal Ingurumen Batzordeak txalotu egin du gazteen ekimen hori eta animatzen ditu herritarrak parte hartzera azken ekimenean, hau da, bihar egingo dutena. 16:00etan elkartuko dira Edurka pabilioian. Halere, gaur beste ekitaldi bat dago gaur Gaztetxean. 18:00etan, *Amafrika* ikus-entzunezkoa emango dute. Bertan Afrikan izan diren eskualdeko hiru emakumeren bidaia kontatzen da.

Auzolana

Ingurumen Batzordetik gogoratu dute ere martxoaren 7an eta 14an

auzolan ekimena antolatu zutela eta bertan 15 lagun inguru aritu ziren Lasarbeko erreka inguruak garbitzen, Hernialdeko bidearen azpikoaldean. Aparte, beste hiru egunetan 5 pertsona aritu ziren erreka inguruko sasi eta bideak garbitzen.

Bolumen handiko zabor pila bat atera zuten, eta hondakinak bereiztu zituzten. Kristala garbigunera eraman zen. Bestalde, garbiguneko arduradunak eraman zuen txatarra gehiena. 30 neumatikoko inguru bildu eta txoko batean pilatu zituzten, baina hortik egun batzuetara berriz jendeak sakabana turrik agertu ziren. Plastikoei eta ontziei dagokionez, Udalak alokatutako edukiontzi batean bota zituzten. Saillatu ezin diren beste hondakinak Udalak alokatutako edukiontzi batera bota zituzten.

Lan hori guztia egin eta gero, inguru hori garbi mantentzeko eskakera egin du Udalak, eta herritarrak animatu nahi ditu parte hartzera auzolaneko hurrengo deialdian, Gazte Asanbladak antolatutako ekimenarekin esaterako.

Ehunka lagun Gazumeko parke eolikoaren kontra



Ehunka lagun igo ziren Zelatunera Gazumeko Parke Eolikoaren aurka elkarteko. ANDONI CANELLADA/ARGAZKI PRESS

Ingurumena » Zelatun egin zuten elkarretaratzea herenegun eguerdian, 'Gazumen ez, mesedez' zioen pankartarekin.

ERREDAKZIOA

Gazumeko Parke Eolikoaren proiektuaren aurka ehunka lagun elkarretaratu ziren herenegun Zelatun. Asteazkenean Errezilun prentsaurrekoa egin zuten hainbat udal ordezkari eta gizarte era-

gilek deitutako elkarretaratzea egin zuten, *Gazumen ez, mesedez* lelopean.

Hainbat udalek eta elkartek eman diote atxikimendua parke eolikoaren aurka ekimenari, tartean eskualdeko zazpi udalek (Aduna, Albiztur, Anoeta, Bidegoian, Larraul, Ikaztegieta eta Zizurkil) eta hiru elkartek (Asteasu-ko Sagain mendi taldea, Erniozaleak elkartea eta Ibarako Eneko Aritza kultur taldea), Gipuzkoako Foru Aldundiak ere kontrako jarrera azaldu du.

Energia berriztagarrien aurka ekimena ez dela azaltzen dute Gazumen parke eoliko bat egotea nahi ez dutenek. Pankartan jarrita zuten mezuak erakusten duenez, parke eoliko horrelako leku batean jartzea da ez dutena ondo ikusten. «Energia-kontsumoa murrizteko politika eraginkorrik egiten ez den bitartean» eta parkerako «aurreikusten den etekina» parkearen aurkakoek ez diote «justifikaziorik» ikusten Gazumen egin nahi den «tamaina horretako txikizoiari».

Xake txapelketak eman dio bukaera Irurako Kultur Asteari

ERREDAKZIOA

Irurako Kultur Asteari amaiera emateko xake txapelketa antolatu zuten herenegun. Nahiz eta aurreko hasi, xake ikastaroetara joaten diren herriko 23 haur animatu ziren parte hartzera. 23 haur horietatik, nesken parte-hartzea nabarmena izan zen eta «benetan bikain aritu dira», antolatzaileek azaldu zuten. Oro har, gazte guztiak interes handia erakutsi zuten eta giro polita sortu zen.

Bukatu ostean, sari banaketan egon zen eta parte-hartzaile bako-

tzari goxoki poltsa bana banatu zitzaizkien. Horrez gain maila guztietan lehenengoei kopa banatu zitzaizkien. Ondorengoak izan zen sailkapena: Xabi Lasa izan zen lehenengoa infantiletan. Alebinetan, 1. Julen Apeztegia eta 2. Maialen Mujika. Alebinetan, 1. Aitor Irurtzun, 2. Eki Apeztegia, 3. Isaac Labaien eta 1. neska Irati Ormazabal. Aurrebenjaminetan, 1. Iker Iglesias, 2. Ibon Iglesias, 3. Asier Mujika eta 1. nesketan Ane Amondarain. Sari berezia Xabi Arrospidek jaso zuen.

Hilik aurkitu dute gizonezko bat Berrobiko Eutela auzoan

ERREDAKZIOA

Berrobiko gizonezko baten gorpua aurkitu zuten atzo herri horretako Eutela auzoan, etxola baten barruan. Ertzaintzak adierazi duenez, indarkeria zantzuak zituen gorpua eta, beraz, gizonezkoa erail egin dutela uste da. Atzo arratsalderako ez zuten atxilotetarik egin.

Ertzaintzaren arabera, atzo 15:45ak aldera jaso zuten deia, gorpua aurkitu zutela esanez. Ertzainak bertara iristerakoan, gizonezkoa hilda zegoela baieztatu eta indarkeria zantzuak zituela ikusi zuten.



Ertzaintzak Eutelako etxolarako bidea moztu zuen atzo arratsaldean. A.I.

Hitzaldia

Maiatzak 20, asteazkena
Tolosako Kultur Etxean • 19:00etan

Ezker abertzale politikoa. Etorkizuneko apustua.
Jon Abril eta Oxel Erostarbe



Laburrak

Etziko greba dela eta, ipuin kontaketa data aldatu dute

KULTURA ● Galtzaundi Euskara Taldeak etzirikako ipuin kontaketa zeuzkan antolatuta, zehazki Alegian eta Orendainen hurrenez hurren. Baina greba dela-eta (maiatz 21), ipuin kontaketa hauek hilaren 26an izango dira (gaur zortzi). Alegian 17:15ean hasiko da liburutegia eta jarraian Orendainen 18:30ean, hau ere liburutegian.

Europako Hauteskunderi buruzko herri batzarra

AMEZKETA ● Bihar, hilak 20, Amezketan herri batzarra egingo dute. Ezker abertzaleak antolatutako bilera 20:30ean hasiko da, bertako balioanitzeko gelan. Kasu honetan jorratuko duten gaia honakoa izango da: *Europar Hauteskunderian zer bozkatu?* Herritar guztiak daude bertara gonbidatuta. Informazioa emateaz gain, zalantzak ere argituko dituzte.

Kultur Astearen baitan egun aldaketa batzuk

LIZARTZA ● Lizartzako Udal alternatiboak antolatutako Kultur Astearen baitan, aldaketa bat egon da: atzo Luis Mari Intzak eskaini behar zuen erleen inguruko hitzaldia bihar izango da, 20:00etan, Gunean. Bestalde, biharko Fernando Rojo tolosarraren film emanaldia atzo izan zen. Hitz gutxitan, bi ekitaldiak bata besteari aldatu egin dira.

Intxurre seigarren postuan da 1-3 galdu ondoren

ALEGIA ● Intxurreko lurraldeko mutilek 1-3 galdu zuten asteburuan, Ostadar taldearen aurka jokatutako ondoren. Espero zuten, goiko postuetan baitago taldea. Beraz, 22 punturekin jarraitzen dute alegiarrek, 6. postuan. Datorren jardunaldian Gure Txokoaren kontrari buruzko hitzaldia izango da. Oraingoan ere ez da erraza izango, goiko postuetan baitago.

Paella jaterako txartelak dagoeneko salgai daude

ALBITZUR ● Hilaren 30ean, Albizturren Kultur Astearen barruan, paella jatea izango da. Honez gero txartelak eros daitezke, 5 euroren truke. Hauek udaletxean zein herriko etxean (jatek) lor daitezke. Frontoian prestatuko duten paellarekin batera postrea, kopa eta kafea izango dira. Hilaren 27ra arte (asteazkena) egongo dira salgai txartelak.



Ainhoa Garmendia eta Oihana Garaialde 2. mailakoan aritzen dira. HITZA

Garmendia eta Garaialde Paleta Txapelketan aritu dira

Alegia ● Oartzunen jokatutako Euskal Herriko lehiaketan finalerdia jokatu zuten emakume alegiarrek, lehen mailakoan kontra.

ERREDAKZIOA

Oartzunen Euskal Herriko Paleta Txapelketa jokatu ari da eta, Alegia bi neka final erdietara iritsi dira (Suberri). Norgehiagokaa horretara iritsi direnak Ainhoa Garmendia eta Oihana Garaialde izan dira.

Oartzunen bai mutil etan bai nesken arteko Paleta Txapelketa antolatzen dute urtero. Bada, tartean, bertan parte hartu dute Ainhoa Garmendia eta Oihana Garaialde alegiarrek. Ligaxka bat jokatutako ondoren, finalerdia jokatzen iritsi dira. Herenegun goizean jokatutako finalerdia eta aurkari moduan Estitxu Pierola eta Edurne Argain izan zituzten.

Partida jokatu aurretik bazekiten bi bikoteen maila ezberdina zela, izan ere, alegiarrek bigarren mailan aritzen dira, eta aurkariak aurreneko mailan. Horregatik, Garmendia eta Garaialderen hel-

burua, ahalik eta tanto kopuru gehien egitea izan zen hasiera-hasieratik, alde aurretik irabazteko aukerarik ez zutela jakinik.

Horrela bada, Giriziako Pilota Sailak antolatutako txapelketa honetan, finalerdia Madalensoren jokatutako zuten eta 25 eta 16ko emaitzarekin «gustura» geratu ziren alegiarrek, «aurkariengan urduritasuna pizteagatik eta baita tanto lehiatu batzuk jokatu izanagatik ere».

Datorren asteburuan jokatuko dira mutil eta nesken arteko finalak. Larunbatez goizean izango dira.

Elkarrizketa digitalak.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN webgunean sartuz gero, orain arte egindako elkarrizketa digitalak irakurri ahal izango dituzu. Irakurleek bidalitako galderak erantzun dituzte gonbidatuek. Hauek dira orain arte HITZA bisitatu dutenak: Gari Uranga, Garbiñe Biurrun, Kike Amonarriz, Jokin Biddarratz, Inaxio Perurena, Edurne Pasaban eta Asier Izagirre, Antton Izagirre eta Hektor Espin, Nerea Sancho eta Leire Olaberria.

www.tolosaldekohitza.info

Trontza Txapelketan Rezabal-Rotetak bigarren egin dute

Herri kirolak ● Esnaola anaiek irabazi dute beste behin Gipuzkoako; txingatan Juan Joxe Agirregabiria gailendu zen.

ERREDAKZIOA

Joan den igandean Alkizan, bertako Kultur Astearen baitan, Gipuzkoako Trontza eta Txinga Txapelketa jokatu zen. Eskualdeko hainbat herri kirolarik hartu zuten parte, trontzan zehazki. Jende ugari hurreratu zen plazara.

Aitor eta Igor Esnaola anaiek irabazi dute berriz ere Gipuzkoako Trontza Txapelketa. Legorretakoek, gainera, hiru segunduan ondu egin zuten iazko denbora. Txapeldunek zutikako enborrean egin zuten alde. Bigarren postuan, berriz, Aitor Roteta alkizarra eta Andoni Rezabal aiarra gelditu ziren.

Lau biko aritu ziren trontzan Alkizako plazan: Jokin Garmendia eta Unai Iraola (Baliarrain, Ikaztegieta) ere bai, baina hauek laugarren egin zuten, Juanjoxe Agirregabiria eta Unai Salegi (Deba, Mendaro) bikotearen atzetik. Guztira 18 epai egin zituzten: 12 ezandako enborrean eta 6 zutikakoan; denak pago enborreko kanardikoan (1,25 metro). Lehenik 6 epai egin zituzten etzanda, ondoren beste sei zutikako enborrean eta azkenik beste sei etzanda.



Rezabal-Roteta bikoteak 9 minutu behar izan zituen egurra mozteko. HITZA

Ondoren, Txinga Txapelketa

Gipuzkoako Txingen Txapelketan Juan Joxe Agirregabiria debata irabazi zuen. Beraz, hontan ere txapelduna errepikatu egin da, iaz ere berak jantzi baitzuen txapela.

Txapelduna bigarren aritu zen lanean, eta 18 plaza eta erdi egin zituen: guztira, beraz, 405,8 metro. Lehena lanean Garikoitz Alberdi izan zen, eta Lasturkoak ere 18 plaza egin zituen.

Alkizako plazak guztira 22 metroko luzera du, eta kirolariak banaka aritu ziren. Saioari ekin aurretik berriz, eskuak garbitu behar izan zituzten, xaboiez eta urez.

Aiztondoko jubilatuen eguna izango da Alkizako Kultur Astearen azken ekitaldia, eta datorren igandean izango da.

» SAILKAPENA

Trontzako emaitzak

- **Lehenak.** Aitor eta Igor Esnaola anaiek, 07:39.
- **Bigarrenak.** Rezabal-Roteta, 09:01.
- **Hirugarrenak.** Agirregabiria-Salegi, 10:47.
- **Laugarrenak.** Garmendia-Iraola, 12:08.

Txingetako emaitzak

- **Lehenengoa.** Juan Joxe Agirregabiria, 405,8 metro.
- **Bigarrenak.** Patxi Ituarte, 396 metro.
- **Hirugarrena.** Andoni Zubiaurre, 365 metro.
- **Laugarrena.** Xabier Urresti, 287,37 metro.



Promozio berria -Ibarra-

Sustatzailea:
Epergain
Eraikuntzak eta Promozioak, S.L.
Eraikitzen du:
Aburuza
Eraikuntzak S.A

Kale Berria 46 • Villabona • 943 69 0297 • www.aburuza.com



Bukatu dute XIX. Kultur Astea

BERROBI ■ Bukatu dute jada Berrobiko XIX. Kultur Astea. Pasa den astelehenean hasi ziren eta igandea birtarte buruhandiak, sukaldaritza erakusketak eta hitzaldiak izan dituzte. Pasa den igandean lehenik eta

behin Txakoli Dastaketa egin zuten udaletxe aurrean eta ondoren umeen erromeria ere izan zen, non Berrobi, Villabona, Larraul, Bidania, Andoain, Tolosa, Beasain eta Aramako umeek hartu zuten parte. LAHIALDEGA

Udalak Uzturpeko galdara finantzatu du

Ibarra ■ Orain dagoen galdarak ez ditu baldintza egokiak; larrialdietarako irteera bat egokitzea ere adostu dute.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak Uzturpe ikastolan galdara berri baten instalazioa finantzatzea adostu du, izan ere orain duten galdarak ez du betetzen legeak eskatzen dituen baldintzak.

Udalbatzak 120.000 euroko partida bat onartu du egitura berria ipintzeko lanak ordaindu ahal izateko.

Ibarrako Udalak, era berean, «aldizkako harremana mantentzen du Uzturpe ikastolako zuzen-

dariarekin, Jokin Zugastirekin, udalerrian aurkitzen diren erakunde pribatuekin harreman jarraituz mantentzeko metodo bezala», argitu du.

Topaketa horietako batean, ikastolako arduradunak ikastetxe-ari zerbitzua ematen dion galdarak legeak jasotzen dituen baldintzak ez zituela betetzen aipatu zuen.

Aldi berean, larrialdietarako irteera bat egokitzea ere adostu da horrela, Uzturpe ikastolako segurtasun sistema osatuta geratuko litzatekeelarik.

Erabaki honekin, Ibarrako Udalak «udalerrian eskaintzen diren zerbitzu publiko nahiz pribatuak hobetu nahi ditu, biztanlegoko talde guztien bizi kalitatea hobetzeko xedearrekin».

Langostinokoek asteburu pasa antolatu dute

Ibarra ■ Hilaren 30 eta 31n izango da asteburu pasa; igandean bueltatuko dira eta bazkaria izango dute.

ERREDAKZIOA

Langostino Moto Kultur Elkarte-koen urteko laugarren irteera asteburu pasa izango da. Maitzaren 30 eta 31n egingo dute eta gaua Nafarroako Acedo herriko kanpian emango dute.

Larunbatean irtengo dira herriko plazatik 16:30ean eta igande goizean bueltatuko dira Ibarrara, bertan ere bazkaria egingo dutelarik. Asteburu pasan parte hartu behar dute izena langostinomoto-festa@gmail.com helbidean edota telefono hauetan: 630 784 213, 670 417 915 edo 636 403170.

Aldez aurretik ordaindu behar da

Parte-hartzea 30 eurokoa da asteburu pasa bakarrik egiten dutenentzat eta irteeran eta igandeko bazkarian parte hartu behar dutenek, aldiz, 42 euro ordaindu behar dute.

Dirua maiatzaren 26a baino lehen sartu behar da honako kontuan: 303 514 184 141 00 23232 (Euskadiko Kutxa).

Ordainketako agiria gorde eta irteeran eman behar zaie antolatzaileri.

Udalak 110.000 euro inbertituko ditu ludoteka berria egiteko

Ibarra ■ Orain Ibai-Gain kalean dagoen ludoteka Azkue Auzora eramango dute; datorren irailean irekiko dute.

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak ohar baten bidez jakinarazi duenez, 110.000 euroko aurrekontu-partida bat adostu du Ibai-Gainen kokatuta dagoen ludoteka Azkue Auzoan dauden Udalaren lokal batzuetara tokiz aldatzeko.

Ludoteka berriaren irekiera aurtengo irailean egitea espero du Udalak eta eskaintzen den zerbitzua nabarmen hobetuko dela ere uste du.

«Udal zerbitzu hau oso onartuta dago ibararren artean eta bere erabilera maila altua da eta horrek, zenbait leku-arazo eta desgastea eragiten ditu», argitu dute.

Lanak egiteko Udalak instalazioa zein egoeratan aurkitzen den aztertu du eta bere funtzionamendu baldintzak guztiz egokiak badira ere, «asko hobetu ahal izango dira zerbitzua beste kokaleku batera eramanez gero», gaineratu dute. Zerbitzu hau Azkuea eramanez, «oraingo instalazioetan aldi baterako iraupena izango luketen inbertsioak egitea ekidin liteke eta zerbitzuaren tipologiara hobeto egokitzea ahalbidetu».

Horrela, ludoteka berriak bere azalera handituko du 115 metro koadrora iritsiz eta espazio horretan erabiltzaileen beharrei erantzuna emango dien «ekipamendu moderno bat» egokituko da.

Ekintza honek, gainera, haur gehiago hartzeko aukera ere eskainiko du eta horrela, «hazten ari den Ibarrako biztanlegoaren behar berriei erantzun ahal izango zaie, ibararren eskakizunei erantzunez».

Elduaingo Udalak ludoteka antolatuko du

ERREDAKZIOA

Elduaingo Udalak jakinarazi duenez, uztaila osorako herriko umeei zuzendutako ludoteka zerbitzua antolatzeko asmoa du.

Horiek horrela, zerbitzua uztailearen 1etik 30era izango da 10:00etatik 13:00etara.

Ludoteka 4 eta 9 urte bitarteko herriko haur guztiei zuzendatuta dagoela argitu du Udalak.

Izena, Udaletxean

Izena udaletxean bertan eman behar da 943 683 121 telefono zenbakira deituta. Izena emateko azken eguna ekainaren 1a izango da.



Alurreko ikasleak Izaskunen

IBARRA ■ Ibarrako Alurr Dantza Taldeko hainbat ikasle Izaskun auzoan izan ziren pasa den igandean, bertako erromerian parte hartu eta bide batez, ikasitako erakusteko. Maiatzean behar gilerako egiten dituzte erromeriak Izaskunen eta nagusia datorren hilaren 31n izango da, auzoko jaietarako prestatutako egitarauaren baitan. HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Nafarroako Herri Arteko Txapelketa Leitzak eta Arbizuk jokatu zuten herenegun Amazabalen. Jon Jaunarenak erakustaldia eskaini zuen. IDOIA LAHIDALGA

Goizean Herri Arteko Txapelketa eta arratsaldean Bengoetxearen agurra

Leitza » Oinatz Bengoetxeak 15-22 galdu zuen Juan Martinez Irujoren aurka finalerdietan.

ASIER IMAZ

Nafarroako Herri Arteko Txapelketa Leitzak Arbizuren aurka jokatu zuen herenegun Amazabal pilotalekuan. Adinaren arabera, elkarren artean lau maila desberdinetan neurtu ziren bi herriak. Lau partida hauetan lau garaipen lortu zituen etxean jokatu zuen Leitzak.

Egun berean, igande arratsaldean, Oinatz Bengoetxeak Lehen Mailako Banakako Txapelketaren finalerdia jokatu zuen Juan Martinez «dena eman arren» 15-22 galdu zuen finalerako txartela.

Bengoetxea VI.a finalerdiak

Lehen Mailako buruz-buruko txapelketaren lehen finalerdia Donostiako Atano III.a pilotalekuan jokatu zuten Bengoetxea VI.ak eta Martinez Irujok.

Partidak 45 minutu iraun zuen. Pilota jokoan 9 minutuz bakarrik egon zen. 178 pilotakada eman zituzten orotara, hauetatik 37 tanto-

Juan Martinez Irujo: «Markagailuak ez du partidaren gogortasuna isladatzen»

ak izan ziren. Oinatz Bengoetxea 36 aldiz sartu zen airez, hauetatik 19tan sotamanoz.

Datu hauek ikusita, argi geratzen da partida oso bizia izan zela. Irabazlearen hitzetan «markagai-

luak ez du partidaren gogortasuna isladatzen».

Oinatz Bengoetxea triste zegoen partidaren amaieran, «dena eman arren» laz lortu zuen txapela irabazteko aukerarik gabe gelditu zelako: «Irabazi ez dudalako triste, nahiz eta dena eman dudan. Partidanzehar ongi aurkitu naiz. Hasieran Juanek ongi asmatu du, gero nire jokora erakartzen saiatu naiz eta berdinketa lortu dut. Irabazteko aukerak nituela ikusi dut orduan. Baina partidaren bigarren zatian huts egite tonto batzuk egin ditut eta bera ziurrago aritu da».

Oinatz Bengoetxea: «Partidaren bigarren zatian huts egite tonto batzuk egin ditut»

Leitzarrek finalerdia Atanotik eta herritik jarraitu zuten. Pakito Sagastibeltza Aurrera Pilota Eskolako kidea da eta partidaren inguruan bi gauza azpimarratu nahi izan ditu: «Partida oso gogorra izan zen. Horrelako abiadura jokatzen duten pilotari oso gutxi daude, eta gutxi horien artean Juan Martinez Irujo eta Oinatz Bengoetxea aurkitzen dira. Huts egiteak nahiko gutxi egin zituzten, ihes egindako pilota batzuk egon ziren baina hori ez da harritzekoa pilota mugitu zuten martxa eta tantoaren erritmoa ikusita. Hori oso gogorra da. Horretaz gain, beste gauza bat ere argi utzi zuen Oinatzek herenegun: lehengo urteko txapelarekin zalantzan gelditu zirenak bere lekuan utzi zituen. Punta-puntan ibiltzeko pilotaria dela erakutsi zuen, aparta, arerioaren edozein huts egite bikain aprobetxatzen daki. Berri ere taldeburu gelditu da hurrengo urterako

eta orduan ere hortxe izanen du gu lau lehendabizikoren artean, zailtzarrik gabe gainera».

Herri Artekoan izugarri

Pakito Sagastibeltzak, beste hainbatek bezala, iragan asteburuan sufritu eta gozatu egingo zuen pilotarekin.

Alde batetik Oinatz Bengoetxearen eta Mikel Olazabalen porrotak aurkitzen dira. Aresoarrak larunbatean Beroinen aurka galdu zuen Bigarren Mailako buruz-burukoaren finalerdietan.

Txanponaren beste aldean ordea Nafarroako Herri Arteko Txapelketa aurkitzen da: Leitzak Arbizuri 4-0 irabazi zion.

Herri Artekoan bederatzik taldek eman zuten izena eta ondorioz hiru herriz osaturiko hiru multzo egin zituzten. Lehen jardunaldian Leitzak Uharteren aurka berdinketa lortu zuen. Multzoko bigarren jardunaldia Amazabalen jokatu zuten etxeko taldeak eta Arbizuk.

Leitzak Arbizuri lau partida irabazi zizkion Nafarroako Herri Arteko Txapelketan

Alebinen partida hilaren 11n jokatu zen eta Jon Lezea-Ander Eskudero bikoteak 18-10 irabazi zuten. Beste hiru mailatan igandean neurtu ziren Leitza eta Arbizu. Infantiletan Anartz Olanok eta Mikel Hernandezek 18-0eko garaipena lortu zuten. Jubeniletan Xabier Jaunarena-Jon Jaunarenak erraz nagusitu ziren, 22-5. Azkenik, seniorretan, Aritz Sagastibeltzak eta Mikel Iriartek osatzen duten bikoteak 22-4 irabazi zuten.

Aurrera Pilota Eskolako Pakito

Sagastibeltzak honela ikusi zuen bi herrien arteko norgehiagoka: «Egia esateko izugarriko ezusteko ona hartu genuen gure aldetik, ez baikeuen 4-0 irabaztea espero. Txikiekin nahiko justu irabazi genuen: 18-10. Gero jubeniletan beraiek oso bikote bikorra zuten: Ezkurdia-Lukin. Gurean Jaunarena anaiek jokatzen dute. Zaharrenarekin, Jonekin, esperantza guztiak genituen baina gazteena oraindik kadetea da eta jubeniletan jokatze oso gaztea. Jonekin biren aurka ria bakarrik aritu behar ko zuela ikusten genuen. Orduan ahalik eta tanto gehien egiteko pentsamendua genuen baina zer da eta, erakustaldi ikusgarri bat

Jon Jaunarenak «izugarriko erakustaldia» eskaini zuten jubeniletan

egin zuten Jonekin, anaia oso ongi lagunduz gainera. Gero gazteena, Jonen indarra ikusita edo hazita ibili zen, oso ongi erantzun zuen. Horrela 22-5 irabazi zuten. Azkenik, seniorretan, Arbizukoak ez genituen ezagutzen baina alde handia egon zen eta 22-4 irabazi genuen. Mikel Iriarte bere punturik hoberenetako baten dago; Gertxoko Txapelketa irabazteaz gain pilotari onenaren saria jaso zuen».

Leitzak 4-0 emaitza honekin finalerdietan sartzeko aukera handiak ditu. Asteburu honetan atsedean hartzea tokatuko zaie, izan ere, multzoko beste bi herriek, Uhart-Arbizuk, euren artean jokatuko dute.

Txapelketa aurrera egiteko bi bide daude: multzoko lehen postua lortu edota hiru multzokoetak bigarren onena izan.

Sokatira Txapelketan atzera egin du Aresok 680 kiloko mailan

A. IMAZ

Goiherri A taldeak irabazi zuen iragan larunbatean lur gaineko Euskal Herriko Sokatira Txapelketaren saioa Azkoitian. Erandio-koek (Bizkaia) 680 kiloko bigarren jardunaldiko txanda eta tiraldi guztiak irabazi zituzten, lehen jardunaldian bezalaxe. Horrenbestez, eskura dute txapela hein handi batean.

Areso azken aurrena

Pisu horretan diharduten sei taldeak jardun ziren lehian eta Areso oraingoak bosgarren gelditu zen. Lehen jardunaldian hirugarren sailkatu ziren aresoarrak, baina Azkoitian Getxori bakarrik irabazi zioten. Getxok, aldiz, saioko txanda eta tiraldi guztiak galdu zituen. Sailkapen orokorrean laugarren postuan aurkitzen da Aresoko taldea. 680 kiloko azken jardunaldia hilaren 23an, larunbatean, jokatu ko da Endoia (Gipuzkoa).

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.
Alegialdea. Osasun z.: 943 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 943 65 23 39
Asteasu. Medikua: 943 692423
Baliarrain. Medikua: 943 889003
Berastegi-Elduain. Medikua: 943 683361
Bidegoian. Medikua: 943 681134
Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411
Ikaztegieta. Medikua: 943 653329
Irura. Osasun zentroa: 943 690720
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Orendain. Medikua: 943 655595
Orexa. Medikua: 943 682228
Tolosa.
Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111
San Esteban: 943 006800
Gernikako arbolak: 943 006900
Amarozko dispen: 943 672637
Asuncion klinika: 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)
DYA: 943 672536
Gurutze Gorria: 943 674888
Villabona. Anbulat.: 943 006970
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930
GARRAIOAK.
Renfe: 902 24 02 02
Donostiako autobusa: 943 361740
Tolosaldeko bus: 943 650621
Leitzaran autob. : 948 221015
Taxia: 943 670420
Taxia (Leitza): 608 873016
BESTERIK.
Ertzaintza: 943 538820
Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858
Tolargi: 943 650016
Lurrmendiko egoitza: 943 670325
Tolosa gasa: 943 675320
Alkoholiko anonimoak: 943 248474



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ameketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**



Urteurrena ospatzeko festa handia

TOLOSA Pasa den maiatzaren 12an 75 urte bete zituen Aiz Orratz elkar-
teak. Urteurren berezi hau ospatzeko asmoz, urte hasieran ekin zieten
ekitaldiei eta herenegun ere elkartean festa antolatu zuten. Egitarau
osatu bat prestatu zuten goiz osoan zehar eta eguerdian Fronton kafete-
gian bildu ziren bazkideak bazkaltzera (irudian ikus daiteke). Egun ederri-
garo zuten Aiz Orratz elkarteko bazkideek. IDOIALAHIDALGA

A Agurrak



Urte askoan!

Goreti Oreja (Tolosa). Atzo 7
urte. Horrelaxe, bixkor-bixkor segi
dezazula opatuz, zorionak aiton-
armona eta familiaren partetik.



Urte askoan!

Unax Rincon Beloki (Tolosa).

Zorionak elemento, iada 2 urte.
Muxu potoloak zure aitaxo,
amatxo eta arreba Loren partetik.

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

agurrak

Mesedez,
ekarri
argazkia
bi egun
lehenago.

A Agenda

Deialdiak

■ **Ibarra.** Eneko Etxebarrieta eta Miyuki Okabaren *Eneko eta Miyuki, tandemean hegoameriketan barrena* ikus-entzunezkoa 19:30ean kultur etxean, *Munduan zehar bidaiatuz* jardunaldien baitan.
■ **Tolosa.** 7 eta 15 urte arteko gazteentzako pintura lehiaketa elkarbizitzaz. Lanak hilaren 25etik 29ra entregatu behar dira Kultur Etxean edo Sukrü Karacusen estudioan (Zabalarreta 5). Oinarriak: www.tolosakoudala.net.

Kultur asteak

■ **Leitza.** XXXI. Kultur Astea: 20:00etan zinean Ander Letamendiaren hitzaldia: *Eskularien eskutako gatazkak*.

Musika

■ **Tolosa.** Jon Garmendia eta Iñaki Plazak *O+Hatx* egitasmoa aurkeztuko dute Eduardo Mokoroa udal musika eskolan 19:00etatik aurrera, 15. Musikaria astearen barruan.

Irteerak

■ **Tolosa.** Harizpe jubilatu eta pentsiodunen elkaratek bidaia antolatu du *Playa de Arora* (Girona, Herrialde Katalanak). Ekainaren leian joango dira eta 15ean itzuli. Opo-

raldiaren prezioa bazkideentzat 391 euro da eta gainontzeentzat 397 euro. Elkartean bertan eman daiteke.

■ **Ibarra.** Hilaren 23an Elizondora irteera: hamaiketako Hotel Baztanen, ondoren bisita Bertiz parke-
ra edo denbora librean Elizondan, 14.00etan bazkaria Baztana hoteleko Garzain jatetxean, ondoren superbingo, dantzaldia eta Hondarribian geldiduna. Izen-ematea, elkartean bertan.

Kirola

■ **Baliarrain.** Baliarraingo II. Frontenis Txapelketa antolatu dute. Bertan parte hartzeko, gizona-
ek banaka eta emakumezkoek bina-
naka, izena eman dezakete Aralar Kirolak-en (Tolosa). 5 euro balio du. Txapelketa ekaineko lehen bi asteburuetan jokatu da.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanaren eta iritzien erantzunik.



Urte askoan Emilio!

Zorionak!

Emilio Salaberria (Villabona). Igandeko partez besarkada iraultzaile bat Villabonatik!
Umore horri eutsi! Maite zaituztegu!



TOLOSAKO
INMAKULADA
IKASTETXEA



Kondeko aldapa 5B Tolosa
www.inmakuladatolosa.com
943673629

HEZIKETA ZIKLOAK

Goi maila

Erdi maila

- Gizarte Integrazioa
- Haur Hezkuntza
- Osasun Dokumentazioa
- Diagnosi Irudia

AURREMATRIKULAK
EKAINAK 1-12
BITARTEAN

- Erizaintza laguntzailea
- Farmazia teknikaria

ZATOZ GU EZAGUTZERA